

Euskadiko Unibertsitate Txapelketa Donostian otsailaren 23an ospatu da

2017/02/24

Euskadiko Unibertsitate txapeleketa otsailaren 23an jokatu da. Aurtengoan Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU-UPV) izan da txapelketa hau antolatzearen arduraduna eta Donostikao instalakuntza desberdinetan ospatu da.

EHU, Deustu eta MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ikasleak izan dira protagonistak eta goiz osoan zehar lehiaketan murgilduta aritu dira. 400 ikasletik gora elkartu dira guztira kirol modalitate desberdinetan lehiatzeko helburuarekin. Besteak beste, eskubaloia, errugbia, futbol7a, areto futbola, saskibaloia, paddela, frontoiko kiroletan aritu dira.

Giroa bikaina izan da eta goiz ederra pasa dute guztiak elkarrekin. Datorren urtean MONDRAGON UNIBERTSITATEAren ardura izango da Euskadiko Unibertsitate Txapeletak antolatzea.

Hemen emaitzak ikusi ditzakezue.



Mila esker partaide guztiei!!